



S
I
N
D
I
K
A
T
U
A



"NAZIONAL ASKATASUNAREN ALDEKO BORROKA,
KLASE BORROKAREN BARNE EGITEN DA ETA
BURGESERI ETA LANGILERI ARTEKO BORRO-
KA HONEK EKARRIKO DIGU ASKATASUN NA-
ZIONAL, LANGILERIA NAGUSI IRTETZEN
DENEAN"

ZA
BA
TZEN

TX 10064



L
M
B

BANKAKO
ETA
AURREZKIKO

EUSKADI LANGILE MOGIMENDUAREN KONDAIRA LABURRA

LABen sorrera ulertzeko eta ea batasunerako politika egin dugun argi ikusteko, hau da gure sindikal ekintza euskal langileriaren batasuna sortzeko eta ez esker-abertzaleei bakarrik zuzendua izan den jakiteko, abertzaletasuna klase borrokaren gainetik dagoela uste duen burges pentsaera gainditu dugun jakiteko, e.a.; hau guzti hau argi ikusteko, behar-beharrezkoa dugu, labur baino ez bada ere, gure lehen urratsak gogoratzea.

1966-an ikusten ditugu euskal langile mogimenduaren lehenengo ahaleginak indar komunistak abertzale bat sortzeko bere barruan. Orduan jaio zen Gipuzkoako Langile Komite Probintziala, baina, errepresioa eta PCren eragina zirela eta, ezereztu egin zen laster. ETAren V-garren Asanbladaren ondoren Langile Frontea sortzen da Bizkaian. Bere zereginik garantzizkoena masa-erakunde (Sindikatoa) izatea zen, CCOO-ek ez zeukaten abertzaletasun zentzu bat emanez erakunde honi. Baina prestaera eta egitura berezi baten faltaz, ETAren gorabeherari lotuta zegoen. Horregatik 1969-an guztiz desagertu zen.

1972-an berriztatzen da mogimendu hau; baina lehenengo orrrak ere barru ikusten dira: politika eta erakunde aldetik askatasunik eza. Dena dela, euskal langile mogimenduan behar-beharrezkoa ikusten zen nazio zapalkuntza onartzen duen masa mogimendu bat.

Honela, bada, 1974-an agertzen dira LABeri buruzko lehenengo azalkisunak, masa erakunde eta alderdi politikoaren arteko ezberdintasunak bereiztuz "LAB, beren burua euskaldun eta zapaldua ikusten duten langile guztiei (bai Euskal-Herri an jaoitakoak eta baita ere kanpotik etorritakoak) eta beren eskakizunak giza mailan eta aberri mailan exijitzeko gai direnei zabalduz dagoen



erakunde bat da". LAB ez da Partidu bat. Partidua langile mogimenduaren abangoardiak osa tzen du. LAB langile mogimen - dua osoari zabaldurik dago.

LAB'EN SORRERA

Inguru honetan sortu zen, ba da, LAB; eta gertaera hau oso garrantzitsua izan zen euskal politika giroan, abertzaletasu naren eta Sozialismoaren arte - ko eztabaidak gaingiditzen zitue lako.

Euskal langile mogimenduaren zati batek Nazio Zapalkuntza - ren arazoa bereganatzen du eta burgesiaren problema hau be - rea egiten du.

Utsune hau betetzera dator LAB. Sindikatoak, edo ekonomi - lañi utsak dira (ELA) edo ez dute bereganatzen nazio zapal - kuntzaren arazoa.

Lehenengo Batzarraren eraba - kietan hau esaten genuen: "Za - iltasunak asko eta handiak di - ren arren, LABek bere bidea ar - gi dauka: Euskal langileen ar - teko zatiketa gaingiditu, nazio - nal askatasuna eta giza askata - suna lortzeko indarrak batuz".

Ezarpen Agirian beste hau esaten genuen: "Nazional aska - tasunaren aldeko borroka, kla - se borrokaren barne egiten da eta burgeseri eta langileri ar - teko borroka honek ekarriko di - gu askatasun nazional, langile - ria nagusi irtetzen denean.

LAB, bada, beti izan da Eus - kadiko langileriari (hau da na - zio zapalkuntzaren irtenbidea independentzian datzala argi ez ikusi arren, beren eskakizu - nak lortzeko, bai giza mailan eta bai nazio mailan ere, Sin - dikato Sozio-Politiko batetan eratzeko prest daudenei) zabal - durik dagoen erakunde bat.

Baina gogo hau oraindik ez dagoela argi esan daiteke, ga - ur egun LABen sartzeko partidu baten asmoak exijitzen direlako. Langileriaren BATASUNA lor - tu nahi dugunontzat ez da hau



biderik onena, beraren zatike-
ta baitakar. Honela alde bate-
ra uzten dugu langile^{ri}aren za-
ti handi bat, partiduaren ideo-
lojia ez dutelako onartzen.
Guzti honek Sindikatoa indarga-
betu egiten du eta langileen
arteko zatiketa besterik ez da-
kar, Sindikato erreformistak
eta oriek nahi dutena. Nazio
zapalkuntzari lehenatasuna emate-
ten diogu giza zapalkuntzaren
aurre^{ri}ki, eta horrela gaⁱⁿditu-
rik geneukala uste genuen dile-
ma hau, beragertzen dugu.

Beste batzuek maila berdine-
tan jartzen dituzte nazio-za-
palkuntza eta klase-zapalkun-
tza. Baina hemen esan behar du-
guna hauxe da: Nazional Zapal-
kuntza (nahiz eta Euskal-Herri-
an, igaroaldi iraultzaile hone-
tan, arazo nagusia bezala ager-
tu) ez dela besterik klase bo-
rrokanen agerpen bat baizik.
Gure burges jatorriak emondako
aldebikotasun hau desegin be -



har dugu.

Marxismo-Leninismotik begira-
turik, nazional eta giza zapal-
kuntzaren arteko autonomiak,
asken batean, bigarrenaren de-
sagertzea dakar.

Komunista abertzale baten -
tzat klase egoera izan behar
da bere eginkizunaren gidari.
Argi eta garbi esanda: abertza-
le zara komunista zarelako.

Hau guzti hau garbi ez eduki-
tzeak moztu egiten du gure
ekintza arloa; postura politi-
ko erradikalek jendeari exiji-
tzean, ez gara iristen euskal
langileri geingoanengana eta
langileen artean zatiketa eta
tirabirak bakarrik lortzen di-
tugu.

LAB, Euskadiko Langileen Sin-
dikatoa egitea nahi badugu,
sindikato bezala tokatzen zai-
gun mailan ibilirik, muga poli-
tiko hori apurtu beharrean gau-
de, LABen sartzeko partidu pos-
tura eta exijentziak alde bate-
ra utzirik. Bestela ETaren Lan-
gile Frontearen utsegite bera-
ietan eroriko ginatoko.

Euskal Langile Mogimenduaren
Batasuna eguneroko elkar ekin-
tzak ekarriko digu, sindikatoa-
ren barruan elkar-lana eginez,
eta ez jendeari LABen sartzeko
ostopak ipiniz.

SINDIKAL SAILAK

LABentzat sindikal sailak Sindikatoaren oinarritzko era - kudeak dira, bere betebeharra lantegiko sindikal kideak bil-tzea delarik.

Orainarte Sindikatoetako or-dezkariak beren kideak baka - rrik ordezkatzeko zituzten, bai na azken hauteskunde hauetan gauza berri bat gertatu da:



sindikato kide ez den jentea hauteskunde zerrendetan jartze a. Gertakizun honek dinamika berri batera bultzatzen gaitu, kandidatura bezala lan egite - ra. Alde batetik "independiente" hauekin koordinatu behar gara lan zendo eta iraunkor bat egin dezagun, gure sindika toan lehenbaitlehen kidetu dai tezkela kontutan arturik; eta besterik, beharrezkoa dugu gu-re artean lan eta eztabaida araudi bat. Bigarren arrazoi hau oso garrantzitsua da, sindikatoko kideek plangintza sakon etaserio bat ez badugu, oso zaila izango zaigulako bes-teak gureganatzea.

Gure eguneroko lanak "independienteentzat" gidaria izan behar du eta gainera eratze premia bat sortu behar du hai-engan. Gizarte komunista-abetzale, hau da independentista, nahi dugun iraultzaileontzat hauxe da bide bakarra iraultza bultzatzeko, jasaten dugun kapital zapalkuntzari erantzun gogor eta egokiak emanez.

Kapitalak eta bere laguntzai leek egiten dizkiguten erasoak eutsiteko, beharrezkoa dugu gu-re indar guztiak bateratzea eta eratzea.

Eratzearen aurkako santipen hau (batzuetan beraien utsegiten politikoengatik, beste batzuetan klase ueste edo kontzientzia ezagatik) behin eta betiko gure ondotik aldentzeko, LABen sindikal saila indartzea baino ondesterik ez dago.

Eta azkenez, hau ere gure zeregin bat da: kandidaturan eta baita ere Lantegi Komitean egon daiteken burokrasia desegitea. Baina nola lortu hau? Sindikal saila indartze, afiliatze kanpainak eginez eta baita erelangileekin arremanak edukiz, orri, hitzaldi, asanblada, e.a.-ren bidez; baina inola ere ez kideen arteko talde txiki bat eginez.

LANTEGI KOMITEAK

Lantegi Komitea herri-legez aukeratua izan den langileen ordezkaria da.

Gaur egun gauza jakina da sindikatoen artean ezberdintasun eta gorabehera handiak direla, baina, halere, komitean egiten ditugun aurkezpenak ez dira izan behar, derrigorrezkoa dugun batasuna, apurtzeko bestekoak.

Lantegi Komitean egin dezakegun lana edota artu dezakegun postura, sindikal sailean egin dako lanak emana izango zaigu. Langileen artean gure asmoak sartzeko gauza bagara benetan, Komiteak ere onartuko ditu gure asmoak; baina ez gara saiatuko inola ere gure ideiak inposatzen eta bai eztabaidatzen.



Honela Komite barnean beharrezkoa den Batasuna apurtzen bada, ez gara izango gu apurtzaileak eta bai beste sindikatoak, eta orduan agentaraziak izango dira beren jokabideak.



Batasun honek ez digu eska - tzen gure ereduak alde batera uztea, beste sindikatôekin (E. L.A., CC.OO., UGT) ezberdintasun handiak eduki arren, ondo baitakigu gure inguruan klase ideologia eta iraultza ekintza oso kaskarrak direla.

Honek esan nahi du LAB bezala artu behar dugun eredu edo programa ez dela izan behar beste inguru edo lantegietan (General Eléctrica adibidez) bezain erradikala, eta gutxien go batzuetatik abiatu behar garela.

Klase Sindikato Nazionala garean eskero, ezin ditugu ahaztu inola ere langileriak dituen arazo larriak: OLARRA, AM - NISTIA, ZAPALKUNTZA, EUSKARA, e.a. Baina kontutan artu behar dugu gure inguruan, hau da Bankan, zein den "kontraesan nagusia" eta zein "kontraesan su - bordinatua". Honela bakarrik jarraituko dugu gure bidea eta, bai eskuindar bidea eta baita ere ezkartiar umebideaustea gaingidituko ditugu.

Gure jokabidea aldatu beha - rrean gaude Bankako langileen artean klase kontzientzia sor - tzeke. Hemen kontutan artu be - har dugu "grega politikoak" jende asko erretzea lortu dutela (iraultzaileak gara eta ba -

dakigu diru arazoa eta politi - ka arazoa gauza bera direla, baina Bankako jende askoren - tzat ez da berdin gertatzen).

Eta askenik, gogoan izan di - ru arazoa izan arren "kontrae - san nagusia" egoera batetan, hau da jendea bultzatzen duena egunen baten izan daitekela horrela ez izatea. Hona hemen, ba, iraultzaileen eginkizuna: langile guztientzat klase bo - rroka izan dedila "kontraesan nagusia".




LANTEGI ASANBLADAK

"Asanbladatik Batasunera".
Hau izan da, teoriz behintzat,
gure elburua. Baina benetan
lortu dugu la esan dezakegu?

Azken hilabeteontan gero eta
jende gutxiago etortzen dela
batzarretara nabaritu dugu,
eta gogogabekeria hau LABeko
kideen artean ere ikusi dugu.

Hau ez ote da izango asanbla
dak besterik gabe egin ditugu
lako? Baietz esango nuke nik.
Asanbladak benetan onuragarri
ak izan daitezen aurrez garta-



tuak izan behar dute, gaiak ez
tabidatuak eta lan konkretu ba
tzu aurkeztu jendeari denen ar
tean, askatasun osoz, erabaki
ak artzeko.

Besteek baino asanblada gehi
ago egiteagatik ez gara demo
krata handi^uagoak. Asanbladake
ria ez da gauza ona, batez ere
gidaritzan politiko argi bat
falta zaionean eta eukera kon
kretu batzu ez dituenen. Hone
tarako biderik onena antolage
bekeria da. Eta gaur egun LAB-

en erakunde eta begirune falta
(batzarretara ez joatea, gaiak
sakontasunez ez eztabaidatzea,
e.a.) eguneroko gauzak dira.

Egoera honek azterketa serio
eta sakon bat egitera bultzatu
behar gaitu gure ekintza poli
tikoa berplanteatzearaino, be
har bada, iraultzaile baten
tzat derrigorrezkoa den kriti
karen bidez.


Amaitzeko, LAB ez da izango
Sindikato iraultzailea bere
arauoinarriak halakoak direla
ko, bere ekintza eta bere kide
en elkarlana iraultzaileak di
relako baizik.



PARTIDU KOMUNISTA-ABERTZALE BA TEN PREMIA

Ekintza iraultzaileak berak ematen digu partidu honen premia, kontutan arturik azken hi labeteetako gora-beheretan HBak eta KASek (hau Koordinakundea eta ez partidua) izan duten eragin eskasa. Iraultzen Aldizkariaren azken alean dienez, LABen sortu diren arazoei (OLARRA, NERVACERO, e.a.) behar bezalako erantzuna emateko ez gara izan gauza.

Autokritikoak izan behar gara eta kontutan artu KASek eta HBak emandako erantzun politikoak kapitalaren politika er-




tsakorraren aurkakoak izan direla. Eta orain galdera bat: Egoera ertsakor honek mantentzen ote ditu KAS eta HB?

Hau egia balitz egoera larri batetan aurkitu ginatke bihar edo etzi. Politika erreformista benetan ezartzen bada Euskadin (Eurokomunismoa Mario Onandia Buru delarik) bigarren Catalunya bat izan gintezke, gidari politiko baten ezagatik, non aukera iraultzaile-independentistak beraien indarra galduko luketen demokrasia burgesaren aurka jokatzeko.

Eta gainera beste galdera batzu: zergatik ez du funtsionatzen EHBnak? Zergatik ez dago gidaritza politiko bat LABen? e.a. Beti-gaude zerbaiten zai, baina ezer ez da iristen.



Hau guzti hau ez da gerta - zen alabearrez. Koordinakunde do Hauteskunde Elkarte batek zin du eman gidaritza politiorik ideologia eta erakunde zberdinak dituelako bere bar-eko talde bakoitzak eta sarri an topo egiten dute. Gaur gun baturik eutsiten gaituen auza bakarra zera da: inposau nahi diguten sasidemokrasia orren kontra daramagun borroa.



Partidu Iraultzaile hau egin arte, LABen barne lana egin be harko dugu, kontutan izanik Partidu eta masa-erakunde ba - ten arteko bikotetasun hori ezingo dela konpondu, independ-entismoaren ikus puntutik, Na zional Arazoa onartzen duen Partidu Komunista bat zendotu arte.

Partidu honek argi eta garbi erakutsi beharko du agintea lortzeko bere bidea zein den. Komunista abertzaleak bagara benetan, honela adierazi behar ko diegu langileei. Langile Diktaduran ezi behar ditugu ma sak, Estatu burgesa ezereztean, masa borrokarekin guztiz bat egina dagoen izkilidun abango-ardia baten behar izenean ezi behar ditugu. Guzti hau, gure ideiak eta asmoak argitzera eta gidaritza politiko bat

Horregatik, bada, gidaritza politiko bat izateko, behar-beharrezkoa da Partidu Iraultzaile bat. Marxismo-Leninismoan narritutako Partidua, KASen estura puntuak, ere laburrera taktika bezala, onartzen diena eta berriztatze frankis- ren aurka klase partiduen ar ko elkartzea aurretik jar- en duena.



lortzera eramango gaituen Zentralismo Demokratiko metodo- - tizat arturik.

Egin-behar latza eta zaila benetan. Iraultzaileentzat beharrezkoa da erosozaileek ar- - tzen dituzten baliakizunak alde batera uztea. Baliakizun hauek burgeseriaren eskuetan jar

tzen gaituzte eta irailtza endekatu egiten dute. Eta endekatzeko hau berdin gertatzen da eskui aldetik naiz ezker aldetik

Eginkizun hau, bizi dugun egoera bezain gogorra da. Baina berau bideratzen badugu, Euskal Iraultza Sozialista oinarrituko dugu.

